

Euskal Elizbarrutia

Euskaldunon Egunkaria, 1991-10-26: 2.

Euskal "arazoa" setatia da. Bai ezaguna den hizkuntzaren aldetik begiratuta; gauza bera biologia aldetik, odoletik edo kaskezurraren neurketatik begira jarrita ere; lurraldez, toponimiatik; gerraz, karlistetatik eta azken Gerra Zibiletik; eta gure herrian betidanik transzendentzia izan duen erlijio aldetik begiratuta ere gauza bera nabarmentzen da. Gerra Zibil honetan euskaldunen jokabidea Elizaganako errespetokoa izan zen, zailtasun haundien artean!, eta ez bakarrik euskaldunak agintzen zuten lurraldean, baita Irujo Ministraria bitarteko zela Madrilen eta gero Katalunyan ere. Hala ere, ez zuen gure kleroak Erromatik, eta Espainiako Elizagandik merezi zuen traturik jaso. Urte batzuk pasa eta Espainiak ezagutu zion, orain 12, gure herriari Autonomia politikoa; garai beretsuan gotzai euskaldunak eskatu zuten euskal elizbarrutiaren ezagutza; gure herriko zati bat Elizari dagokionez Burgosi lotua bait dago, bestea Zaragozari, eta merezi zuela herri honek errespeto hau. Erantzunik ez, baina erabaki honen zain geundela, orain, zabaldu da Bilboko Gotzaiaren apezpiku laguntzaile den Juan Maria Uriarte Zamorara bidaltzeko asmoa. Erromaren aginduz, omen. Lehen ere izan ditugu apaizak han, baina gartzelan. Uriarte gotzai gisa hara joateko ez du eragozpenik jartzen, apaiz leial bezala, ohore dala beretzat aitortzen du Juan Pablo IIaren esanetara jartzea. Baina herria hasi da galderak egiten: zergatik orain eta gotzai euskaldun bat hara? Ez dugu, noski, Aita Sainduaren asmorik ezagutzen. Hemendik apalki eta begirune handiz esan dezaiokeguna da, Euskal herria pake bila dabilen egoera latz honetan ez lukeela ajedrez jokorik gogo onez hartuko.